

Asier Gozategi

**Plazak eskatu dizue horrelako emanaldi bat egitea?**

Gogoan dut bakalaoa etorri zenean erromeri taldeek momentu zailak igaro genituela, Akelarreren desegitea, adibidez. Iritsi zen momentu bat gazteentzat erromeriak ez zirela guay. Azken urteetan, ordea, indartu egin direla ikusi dugu. Guk plazari ematen diogu garrantzia, plazan sortzen baita herria: plazak indarra badu, herria indartsu dago. Plazei eta kalejirei ematen diegu garrantzia. Garai batean kalejira jotzeak ez zuen interesik. Baina kalejirak euskaldunonak dira. Etxetik ateratzen zara pentsatzen ez duzula dantzarik egingo, eta, oharkabean, kalejira batean dantzan zabilta. Inoiz pentsatuko ez zenuen bi pertsonen egon zaitezke dantzan, elkarri eskutik utsita.

Karkara. 2016-03-18

Juan Tapia

**Noiztik ospatzen duzue Euskal Herriko Trikiti Eguna?**

Duela 25 bat urtera arte, urtero ospatzen zen Euskal Herriko Trikiti Eguna. Beti egun zehatz batean egiten zen. Jendeak bazekien data eta jendeak gogoan hartzen zuen data hura. Sakratua izaten zen egun hura eta egun horretan inork ez zuen erromeriarik lotzen. Trikitilari guztiak elkartzen ginen. Oso-oso giro ona sortzen zen. Baina pixkanaka galtzen joan zen. 2011tik hona urtero egitea gehiegi izan zitekeela pentsatu genuen eta bi urtean behin egiten hasi ginen. (...) Lehen egiten zen bezala data zehatz bat jarriko bagenu, jendeak gogoan hartuko luke eta emanaldirik ez luke hitz emango. (...) Nik 27 bat urte daramatzat Beasainen trikitia erakusten. Ni etorri nintzenean, 2 trikiti eta bi pandero ikasle zeuden musika eskolan. Orduantxe hasi zen trikitia musika eskoletan sartzeko. Gero jende asko ibili da. Goierri badago zaletasuna. Dantzarako zaletasun gutxi egotea da arazoa.

Goiberri aldizkaria. 2016-04-22

**Kilometroetarako kantua egin du Emon taldeak**

Kilometroak jaia Bergaran ospatuko da urriaren 2an. Egundorretarako kantua Aritz Alustiza trikitilari partaide den Emon taldeak egin du eta maiatzaren 11n aurkeztu zuten kanturarekin egindako bideoklipa. Sarean dago ikusgai.

**“Maurizia” ikuskizuna**

Maurizia Aldeiturriaga pandero jotzailearen figura du ardatz nagusia Aukeran dantza taldearen “Maurizia” ikuskizunak. Maurizia Euskal musikaren eta dantzaren munduan erreferente argia dela dio Edu Muruamendi-raz Aukeran dantza taldeko zuzendariak eta haren figuran oinarritutako dantza ikuskizuna estreinatu zuten Bilbon apirilaren 2an.

**Erromeria eguna Itziarren**

Andutz kultur taldeak antolatuta urteroko zita izan zuten erromeria zaleek Itziarren maiatzeko lehenengo larunbatean. Egunduzian zehar Hernaniko fanfarrak, Hernaniko albokariak, Zubietako joaldunak, Debako eta Hernaniko txistulariak eta Hernaniko dultzaineroak ibili ziren giroa alaitzen. Trikitilariak ere ez zuten hutsik egin; bertan egon ziren Xabi Solano eta lagunak, Julen Alonso eta Eneritz Aulestia, Josune Arakistain eta Uxue Amonarriz eta Ostolaza eta Narbaiza.

**Imuntzo eta Beloki Amoroton. ETBk grabatua**

Erromeria berezia eskaini zuten Imuntzo eta Belokik apirilaren 30ean Amoroton. ETBk emanaldia grabatu egin zuen larunbat gauean eskaintzen duten Oholtzan saioan emititzeko ekainaren 11ean gaueko 21:45 inguruan beste okerrik ezean.



**altza porru!**  
2016ko ekaina · 61  
EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAREN BOLETINA

EHE Alameda 1 · 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28 · [trikitixa@trikitixa.net](mailto:trikitixa@trikitixa.net)

Euskal Herriko Trikitixa Elkartea  
L.G.: SS-418-01

[www.trikitixa.net](http://www.trikitixa.net) · [www.trikimailua.com](http://www.trikimailua.com)

## II. TRIKITI TOPAKETA ANTOLATU DU EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEAK

Bigarren urtez trikiti topaketak burutuko dira, aurtengoan Asteasuko Otabardi landa aterpetxean.

**NORI ZUZENDUA:** 16 – 20 urte bitarteko (biak barne) trikitilari edo panderojoleei.

**NOIZ:** Ekainaren 27tik 29ra.

**NON:** Otabardi landa aterpetxean (Asteasu)

**PREZIOA:** 80

**IZENA EMATEKO:** idatzi [trikitixa@trikitixa.eus](mailto:trikitixa@trikitixa.eus) helbidera maiatzaren 25etik ekainaren 15era. Jende kopuru mugatuarentzat dago lekua, beraz azkar ibili! Bertan izango dira, besteak beste, Eneko Dorronsoro ikastaroa eskaintzen, Kristina eta Xabier Solano solasaldian, trikitixaren mekanika tailerra eta askoz gehiago!



## AMATZAKO II. TRIKITI JAIALDIA

Uztailaren 2an ospatuko da lurretako Amatzak auzoko II. Trikiti jaialdia, Amatzako trikitixa elkarteak antolatua lurretako udalaren laguntzarekin. Parte hartuko duten bikote eta taldeak hauek izango dira:

Aburrizaga eta Urrutia / Kupela / Eneritz eta Edurtzeta / Huntza / Laja eta Narbaiza / Jauregi eta Julene.

Ilunabarreko 20:00etan hasiko da jaialdia baina aurretik Bizkaiko musikari zaharren argazkiak egongo dira mural batean eta Tiliñok honen inguruko azalpen bat emango du. Jaialdiaren ondotik afaria izango da guztientzat (12€). Afarirako txartelak [amatzakotrikitiba@gmail.com](mailto:amatzakotrikitiba@gmail.com) helbidean, bertako Gauargi tabernan edo Durangoko Plateruena kafe antzokian eskuratu daitezke ekainaren 24a baino lehen.

Aurkitu 7 ezberdintasunak!



## ENEKO EZAGUTUZ, HAMAIKA KONTUZ! ELKARRIZKETA: ENEKO DORRONSORO

### 1. Nor da Eneko Dorronsoro?

Hirubideko Inazio ta Aiarreko Margarín semea! Jeje! Ataungo San Gregorio auzon jaio ta hazitakoa. Afizioen arten, musika, gustokoenetako bat da, ta azkeneko urtetan ikeragarri gozatzeko zortea izan dut.

### 2. Askorentzat "Tximista" bezala ezagunagoa... nondik datorkizu izengoitia?

Jeje! Zopilotesekin lehenengo froga egin nunen, behatzak bizkor antzen ikusi zizkiaten sobrare, ta han hasi zian danak tonterriak esaten ta abeslarik bota zunakin gelditu nintzen azkenen. Katu baten izenan antza geiho hartzen diot baiño bakizu, ezizenen kontra ezin da jun. Jeje!

### 3. Noiz eta nola txunditu zintuen trikitiak?

10 urte nituela lehengusinarene etxera bixitan joan ginene bera ez egotean, osabak bere gelara eaman nindun jostailukin ibiltzeko. Han izan nun nere lehenengo kontaktue. Aitorren hizkuntza zaharra esku batekin atera nun, ta flipatu egin nun!

### 4. Zopilotes Txirriaos taldeko trikitilaria zara. Nolatan sartu zinen?

Garai hortan Iruñeako ikastola baten, Xabi Arakama launekin trikitixa klaseak ematen genitun, ta alkarrekin kotxean goazela, Impekables taldeko kide batek deitu zion Xabiri trikitilari batetaz galdezka. Berak nei telefonoa pasa zian ta aste batera froga eitten neon. Taldean, kide batzuk joan zirenez ta beste batzuk sartu, izenez aldatzea erabaki zen, hortik oain, Zopilotesen nabil.

### 5. Zuk asmatutako kantu berri bat entzun dugu sarean "txirrikak hartu ta goazen". Disko berriren bat abian?

Ari gea zerbait bai. Abesti mordo bat ditugu biden. Uste det diska baten ez zaizkigula sartuko danak, baiño presaik gabe bada ere, zerbait aterako da aurtan.

### 6. Abuztuan Lucas Hicks datorrela entzun dugu. Berriro trikiti eta banjo doinuak elkarrekin entzuteko aukera izango dugu? Ze asmo daukazue?

Bai. Hoi da gure nahia behintzat. Aurtan aste bat bakarrik egoteko aukera dute, ta hortarako herriko festetako kontzerturen batzutan sartu nahiean gabiltza bidaia ordaindu ahal izateko. Berarekin Thomas Deakin musikari ikeragarria dator, dena ongi ateratzen bazaigu behintzat. Lagun asko egin ditu Lukasek Euskal Herrian, polita izango da berriz elkarrekin topatzea.



### 7. Zure ustez modan dago trikitia Euskal Herrian? Eta Euskal Herrikan?

Nere ustez ez. Seme alaba trikitixara edo beste instrumentu batera apuntatzea igual bai dagola modan, baiño garai bateko kontuak entzunda, uste dut trikitixa bere lekura bueltatzen ari dela urteetako boomaren ondoren. Kontua da oain eutsiko dion bere leku duin bati. Euskal Herrikan modan ez dakit dagoen trikitia. Mundu guztian dago soinu diatonikoa, baiño hemen lortu den teknika ta azkartasuna nahiko berezie eitten zaie ta panderoak bezelaxe, oso harrera ona izaten du. Bestetik, kanpora atera naizen leku geihenetan kulturakiko beste sentsibilitate bat ezagutzea tokatu zait, ta horrek irizti baikorregira eramaten nau agian.

### 8. Trikitilaria zara, afizio edo ofizio?

28 urterarte afizio, baiño batez ere musikarekiko afizio. Gero trikitixa irakasle bezela hasi nintzen ta hortik aurrera nik uste hasi naizela trikitilari izateko prozesu hortan. Nik uste det beste 30 urtetan lortuko deala. Saiatu eingo naiz behintzat.

### 9. Zergatik ez dugu Eneko kantuan entzuten?

Txapelketetan hasi ginenean, trikitixa eta porrusalda soinujo-leak kantuan lagunduta puntuazio gehiago ematen zuten. Han handiegiak zien niretzat! Jaja! Nik uste dut ez nuela disfrutatu kantuarekin behar nuenean, ta musikan zentratu nintzela buru belarri. Hau ere 30 urtetan...jejeje!

### 10. Norekin dantzatzeko zenuke Behin batian Loiolan abestia?

Norekin ez nijoa esatea, baiño iluntasun pixkat ez litzeke gaizki etorriko. Ta berak oinetako on batzuk ere bai behatzentzako. Jeje!

### 11. Amets bat?

Buruan dauzkadan amets guztiak gauzatzen juteko sasoi eta zortea izatea.



## KEPA JUNKERA & SORGINAK: MALETAK

Maletak dira trikitixa zaindu eta biltzen duten babeslekuak eta hauek magia berezia ekarri diote Junkeraren azken lanari. Kepa Junkerak "Maletak" lan berria aurkeztu zuen Bilboko museo arkeologikoan ekainaren 2an. Disko honetan ere sorgin gazteak lagun izango ditu baina baita beste hainbat kolaborazio ere: Ion Elustondo, Beloki, Imanol Urkizu eta Xabi Solano, Ibon Koteron, Oreka TX eta besta zenbait musikari handi. Andoni Egaña, Jon Maia, Mikel Sarriegi eta Xabier Sarasolaren letrak ere entzungai izango dira. Lan honen aurkezpen ofiziala Getxoko folk jaialdian izango da irailaren 1ean.



## LAIOTZ TALDEA: GAUA

Laiotz taldeak maiatzaren erdirako kaleratu zuen "Gaua" izeneko diskoa. 10 kantuz osatutako disko honetan erromeri kuxtua mantentzeaz gain beste alderdi batzuk ere ukitzen saiatu dira. Laiotz Hernaniko oialume auzoan sorturiko plaza taldea da. Gaur egun 5 musikariz eta teknikari batez osatua: Dani Narbarte trikitilaria, David Soriazu gitarrista, Ibai Soroa baxu jolea, Xabi Barrenetxea bateria jolea, Naroa Jaka abeslaria eta Alioxia Rodríguez teknikaria. Hainbat kolaborazio ere izan dituzte, tartean Xabi Solano, Unai Agirre, Kistina Solano, Idoia Arriola Amets Arzallus, Aitor Huizi, Leire Rojo etab. Diskoa Elkarren eta inguruko tabernetan ere egongo da salgai.

## THE MIDDLE FINGERS: PROMOZIO DISKOA

Orain dela bi urte jaio zen The Middle Fingers taldea Uribe Kostan eta ordutik hona bazterrek astintzen dabilta erromeria elektronikoetan. Orain zazpi doinuak osatutako promozio diskoa plazaratu dute, lehenengo doinuak, tradizionalak edo klasikoak erritmo elektronikoaz elkartuta. Lau mutilek osatzen dute taldea: Dani Dhez DJa, Ander Pijoan dja, Julen Arredondo Mister Kull gitarrista eta Gotzon Batikon trikitilaria. Laredoko Summer Sun jaialdian parte hartuko dute abuztuan. Diskoa eskuratzeko beraiekin harremanetan jarri behar da facebook bidez eta dohain jasoko da.



## EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA EGUNA 2016

Beasainen Apirilaren 23an ospatu zen Euskal Herriko Trikitixa eguna. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak Beasaingo Udalarekin eta Loinatz Musika eskolarekin elkarlanean antolatutako eguna izan zen. Bazter guztietako trikitilariak hurbildu ziren Beasainera eta herriko kaleak trikiti doinuez alaituak izan ziren egun guztian zehar. Goizean hamaiketako, frontoian bazkaria, erromeria Gaitzerdi taldearekin eta trikipoteoak eginez giro aparta egon zen.